



**INFORMATIKA TEKNIKARI 2 PLAZA**  
**2026/04/22**

**PROBA PRAKTIKOA: JARRAIBIDE ORRIA**

Arreta handiz irakurri jarraibide hauek. Oso garrantzizkoak dira saioa nola egin jakiteko. Proba egiteko moduz zalantza edo zailtasunik baduzu, ez dudarik izan eta galdetu zaintzaileei ariketa hasi baino lehenago.

**EZ IDATZI EZER, HARIK ETA AGINDUA EMAN ARTE.**

➤ Mahai gainean honako material hau izan behar duzu:

- **Sobreak:** sobre handia /sobre txikia/ paper txuri txikia.

Jarraibideak:

-Paper txurian identifikazio datuak jarri: izen-abizenak eta NAN.

-Paper txuria sobre txikian sartu, eta sobre txikia, handian. **Sobreetan ezin da ezer idatzi; ezta markarik egin ere.**

-Azterketa bukatuta, azterketa sobre handian sartu. Ondoren, azterketa entregatu duzula egiaztatzeko agiria sinatu beharko duzu, eta, hori eginda, aretotik irten ahal izango zara.

- **Zigilatutako orriak.**

Zerbait falta bazaizu, eskatu.

- Proba egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NAN (nortasun agiria), ondo ikusteko lekuan. Mahai gainean, ariketak egiteko eman zaizun materiala, azterketan zehar banatuko dena eta nortasun agiria besterik ezin duzu eduki.
- Ezin izango da telefono mugikorrik, erloju adimendunik, pinganillorik, entzungailurik edo bestelako gailu elektronikorik konektatu. Gailu horiek ezin izango dira mahai gainean jarri, eta gordeta eta itzalita egon beharko dute.
- Proba egiteko denbora osoan zehar, erabatekoa izan behar du isiltasunak. Norbaitek ezegoki jokatzeko badu, edo gainerako hautagaiei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora bidaliko da.
- Gaitegiarekin eta/edo lanpostuaren eginkizunekin lotura duten kasu praktikoak ebatzi beharko dira.
- Azterketaren iraupena **lau ordukoa** izango da.
- Puntuazioa: gehienez, 40 puntu eskuratu ahal izango dira, eta gainditzeko, gutxienez, 20 puntu atera beharko dira ariketa bakoitzean.
- **Behin-behineko emaitzak** Eibarko Udalaren iragarki taulan eta webgunean ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)) argitaratuko dira.
- **Hautaketa prozesuaren balorazioa** egin nahi izanez gero, sakatu hemen ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus): Sarrera/ Udala/ Udal sailak eta Zerbitzuak/ Antolaketa eta Langileria/ Hautaketa prozesuen zerbitzu karta/ Balorazio-inkesta).

**ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZARENGATIK**